

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Goberu Kontseiluaren 217/2024 Erabakia, apirilaren 16koa. Onespena ematea ehuneko 0,5 gehigarria igotzeari Gazteriaren Foru Erakundeko langileen ordainsarietan**

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2 artikulua sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien zenbatekoa ezartzen du, honela:

“1. 2023an, sektore publikoko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5etik gorako igoera orokorrik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeen izanik, bai langile-kopuruari bai antzintasunari dagokienez.

2. Halaber, hala badagokio, honako igoera hauek aplikatuko zaizkie 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPI) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko IPCAren eta 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren batura ehuneko 6 baino handiagoa bada, gehenez ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko iraileko IPCA aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki bidez, eta erabaki hori BOEn argitaratuko da.

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaerari lotutako igoera 2023an. BPG nominalaren igoera Gobernuak aurrekontu-lege hau egiteko erabili den koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoaren berdina edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Ondorio horietarako, EINek 2023ko BPGd-ren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, igoera horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, zeina BOEn argitaratuko baita.”

19. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen bi.1 Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 25eko 221/2023 Erabakiaren bidez, 2023. Urterako Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 2,5 igotzea onartu zen, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Era berean, 19. Artikuluan aurreikusitako inguruabarrak betetzen direla egiaztatu ondoren. 31/2022 Legearen bi.2.a) artikulua bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 924/2023 Erabakiaren bidez, 2023ko ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera gehigarria onartu zen.

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) 2023ko BPGd-ren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, egiaztatu da urte horretan BPG nominalaren hazkundeak gainditu egiten duela Gobernuak 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearekin batera aurkeztu zen koadro makroekonomikoan egindako aurreikuspena.

Bestalde, Ministro Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bileran, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien ehuneko 0,5eko igoera osagarria baimendu du, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bos.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Era berean, 2024ko otsailaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da Gobernu Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien 2023ko igoera, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien oinarriaren gaineko ehuneko 0,5eko igoerarekin.

Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 25.1 artikulua honako hau ezartzen du:

“Arabako Foru Aldundiko eta erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen 2023rako ordainsari osoak, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, foru-arau honetan aurreikusitakoaren arabera igoko dira, alderatutako bi aldiak homogeenak izanik, bai langile-kopuruari bai antzinasunari dagokienez, eta Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.”

Arabako Lurralde Historikoaren 2023. Urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera:

“Arabako Foru Aldundiko eta foru-erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratudun langileen 2023rako ordainsari osoak, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, foru-arau honetan aurreikusitakoaren arabera igoko dira, alderatutako bi aldiak homogeenak izanik, bai langile-kopuruari bai antzinasunari dagokienez, eta Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.”

Foru Arau horren bigarren xedapen gehigarriak honako hau xedatzen du:

“2023ko ekitaldirako ordainsarien igoera ezartzen da. Igoera hori Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eta horretarako baimena duten foru-sektore publikoko gainerako erakundeetako organo eskudunek zehaztuko dute, eta, gehienez ere, Estatuko oinarrizko legerian muga orokor gisa ezarritakoa izango da.”

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren testu bateratuko 37. artikulua arautzen duen negoziazioko izapidea bete da, Euskal Funtzio Publiko legearen abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XIV. tituluarekin harremanetan.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Diputatuen Kontseiluari proposatzea erakunde autonomoari atxikitako langileei aplikatu beharreko ordainsari araubidea eta soldata baldintzak.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.b.6 artikulua, Jarduera Ekonomikoen eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 7. eta 9. artikuluekin lotuta, Foru Gobernu Kontseiluari esleitzen dio Foru Administrazio honen zerbitzuko langileen lan-baldintzak zehazteko eta onartzeko eskumena.

Aldez aurretik Eskuhartze Zerbitzuaren nahitaezko txostena eskatuta.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertuta ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzuko langileen 2023ko ekitaldirako ordainsari orokorren eta antzinasunaren ehuneko 0,5eko igoera osagarria, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien oinarriaren gainean.

Bigarrena. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen 2023rako sortutako produktibitate-funttsaren ehuneko 0,5eko igoera osagarria, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 31ko 25/2023 Erabakiaren bidez, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta.

Hirugarrena. Foru dekretu honek Gobernu Kontseiluak onartuko hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak, ALHAOean argitaratzearen den kontuan hartu gabe.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka aukerako berzaztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman zuen organoan bertari, hilabeteke epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteke epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 19a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*

**ANA MARÍA DEL VAL SANCHO**

*Kirol zuzendaria*

**JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN**